

2022ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko ezkontzak % 21,6 igo ziren

Martxoan ezkontzak % 38,6 gehitu ziren

Eustaten datuen arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan 1.041 ezkontza izan ziren Euskal AEn, hau da, aurreko urteko hiruhileko berean (856 orotara) baino % 21,6 gehiago. Ezkontza guztietatik, 1.004 ezkontza heterosexualak izan ziren, eta 37 sexu bereko pertsonen artekoak, 20 emakumeen artekoak eta 17 gizonen artekoak.

Hilabeteka, aipatzekoa da ezen urtarrilean 2021eko ezkontza-kopuru bera egin zela, otsailean % 24,3 gehiago, eta martxoan ezkontzak % 38,6 gehiago izan zirela 2021eko hilabete berberen aldean. Datuak 2019ko hilabete berberekin alderatuz gero, urtarrilean ezkontzen kopurua % 25,5 igo zen, otsailean % 5,9 igo, eta martxoan % 9,8 jaitsi.

Ohi bezala, hiruhileko honetan ezkontza zibilen proportzio handia gertatu zen. Ezkontzen % 92,2 zibilak izan ziren, sexu desberdineko pertsonen artean, eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontzak batuz gero (guztiak zibilak), ehuneko osoa % 95,8ra igo zen, aurreko urteko hiruhileko bereko % 97,5aren azpitik.

2022ko lehen hiruhilekoan izaniko 1.041 ezkontzetan, Euskal AEn bizi ziren 1.005 gizon eta 1.003 emakume ezkondu ziren, eta gainerako ezkontzideak kanpoan bizi ziren. 800 senarrentzat (% 79,6), lehen ezkontza izan zen; 195 gizon dibortziatu eta 10 gizon alargun berriz ezkondu ziren. Lehen aldiz ezkondu ziren emakumeen ehunekoak gizonena baino handiagoa izan zen; izan ere, emakume ezkongabeak 808 izan ziren (% 80,6); emakume dibortziatuak 185 izan ziren, eta emakume alargunak 10.

Ezkontzak ezkontzideen adinaren arabera banatuz gero, senarren artean, % 89,8k 30 urte edo gehiago zituzten; emazteen artean, berriz, ehuneko hori % 86,6ra jaisten da. Aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, proportzio horrek behera egin du gizonen kasuan (% 91,6 2021ean) eta gora emakumeenean (% 84,5 2021ean).

Atzerriko nazionalitatea duten emazteen ehunekoak behera egin du, eta senarrenak, berriz, gora

2022ko lehen hiruhilekoan, emakume ezkonberrien % 27,2k eta gizon ezkonberrien % 19,7k atzerriko nazionalitatea zuten. Ehuneko horrek behera egin du, 2021eko aldi berarekin alderatuta, emazteentzat, eta gora senarrentzat (orduan % 27,9 eta % 18,4 izan ziren, hurrenez hurren).

Egoiliarren ezkontzak, inskripzio-lurraldearen, ezkontza-motaren, ospatzeko moduaren, aurreko egoera zibilaren, adinaren eta ezkontza-hilabetearen arabera (1). 2022/I


	Oraingo hiruhilekoa (2022/I)		Aurreko hiruhilekoa (2021/IV)		Aurreko urteko hiruhileko bera (2021/I)				
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)	
Ezkontza	1.041	100	1.577	100	-34,0	856	100	21,6	
Araba / Álava	130	12,5	232	14,7	-44,0	133	15,5	-2,3	
Bizkaia	534	51,3	769	48,8	-30,6	401	46,8	33,2	
Gipuzkoa	334	32,1	486	30,8	-31,3	284	33,2	17,6	
Euskal Aetik kanpo	43	4,1	90	5,7	-52,2	38	4,4	13,2	
Heterossexualak	1.004	96,4	1.518	96,3	-33,9	807	94,3	24,4	
Kanonikoak	44	1,3	135	3,8	-67,4	21	0,6	109,5	
Zibilak	960	29,2	1.383	38,4	-30,6	786	23,6	22,1	
Homossexualak	37	3,6	59	3,7	-37,3	49	5,7	-24,5	
Gizon artean	17	0,5	25	0,7	-32,0	20	0,6	-15,0	
Emakume artean	20	0,6	34	0,9	-41,2	29	0,9	-31,0	
Senar-emazteak	1.005	100,0	1.494	100,0	-32,7	816	100,0	23,2	
Ezkongabea	800	79,6	1.226	82,1	-34,7	644	78,9	24,2	
Alargunak	10	1,0	20	1,3	-50,0	7	0,9	42,9	
Dibortzuatuak	195	19,4	248	16,6	-21,4	165	20,2	18,2	
30 urtetik beherakoak	102	10,1	131	8,8	-22,1	68	8,3	50,0	
30 - 39 urte	370	36,8	655	43,8	-43,5	286	35,0	29,4	
40 urte eta gehiago	533	53,0	708	47,4	-24,7	462	56,6	15,4	
Espainiarrak	807	80,3	1.259	84,3	-35,9	666	81,6	21,2	
Atzerriko nazionalitatea	198	19,7	235	15,7	-15,7	150	18,4	32,0	
Emazteak	1.003	100,0	1.529	100,0	-34,4	824	100,0	21,7	
Ezkongabea	808	80,6	1.241	81,2	-34,9	651	79,0	24,1	
Alargunak	10	1,0	8	0,5	25,0	8	1,0	25,0	
Dibortzuatuak	185	18,4	280	18,3	-33,9	165	20,0	12,1	
30 urtetik beherakoak	135	13,5	234	15,3	-42,3	128	15,5	5,5	
30 - 39 urte	429	42,8	706	46,2	-39,2	333	40,4	28,8	
40 urte eta gehiago	439	43,8	589	38,5	-25,5	363	44,1	20,9	
Espainiarrak	730	72,8	1.201	78,5	-39,2	594	72,1	22,9	
Atzerriko nazionalitatea	273	27,2	328	21,5	-16,8	230	27,9	18,7	
Ezkontzaren hilabetea									
Urtarrila	285	27,4				285	33,3	0,0	
Otsaila	307	29,5				247	28,9	24,3	
Marxoa	449	43,1				324	37,9	38,6	
(1) Datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira									

Data 2022ko Irailaren 26a

Iturria: Eustat. Ezkontzen Estatistika

Euskal AEko ezkontzak. Guztira eta joera

Hileko datuak



Iturria: EUSTAT. Ezkontzen Estatistika

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62